


Aitor eta Sugarren istorioa



Orain dela urte asko, bazegoen familia bat oso pobrea zena. Familia hori, aita Jose, ama Maite eta seme Aitorrek osatzen zuten. Aitor 11 urteko mutiko bat zen. Aitorrek bere ama zaintzen zuen, gaixorik zegoen eta. Aita aizkolaria zen. Aitorrek dirua, janaria,... lortzen zuen familia mantentzeko.

Egun batean Aitor basora joan zen ehizatzerara eta arkua eskuan zuela, arrautza berezi eta arraro bat ikusi zuen, hurbildu egin zen eta arrautza urdina eta laranja zenez, badaezpada ez hartzea pentsatu zuen. Hurrengo egunean ehizatzerara joan zen berriro eta arrautza ikusi zuen, berriro hurbildu eta mugitzen ikusi zuen, hartzea pentsatu zuen eta hartu zuen. Aitor etxera heldu zenean, gurasoei erakustea pentsatu zuen eta gurasoek ikusi zutenean harrituta geratu ziren. Gurasoek bueltatzeko esan zioten baina Aitorrek ez zuen kasurik egin.

Aitor gau eta egun egon zen arrautza zaintzen. Baina egun batean arrautzak pitzadura txikitxo bat zuela konturatu zen; eta egun batzuk geroago, arrautzak gero eta zulotxo gehiago zituela konturatu zen. Handik gutxira, arrautza apurtzen hasi zen eta dragoi txiki bat jaio zen! Aitor harrituta geratu zen.

Aitor lagun guztiei kontatzera joan zen baina inork ez zion sinetsi. Eta etxera joan zenean dragoi txikia ikustera, dragoia ez zegoen. Aitor larritu egin zen eta basora joan zen ia bertan bazegoen ikustera, baina zoritxarrez ez zegoen.

Amarengana joan zen galdezka:

– Ama, ama ikusi ahal duzu dragoi txikia?